

•
**Amaya
Suberviola**
*Traducción
de pantalla*

•
**Txaro
Fontalba**
Clitoria

•
**Amaia
Molinet**
*La ideología
del amor*

•
**Laida
Aldaz**
To let go

•
**Marcos
N. Sayas**
Murmuro

•
**María
Jiménez
Moreno**
*Debajo de
mi almohada
vivirán todas
mis cosas*

•
**Fermín
Jiménez
Landa**
*Dulce trago
agridulce*

Exposición Ayudas a las Artes
Plásticas y Visuales 2022
2022ko Arte Plastiko eta
Ikusizkoetarako Laguntzak Erakusketa

P. 5
Siete Encuentros en
Pamplona 2023 | Zazpi
Topaketa Iruñean, 2023
Juan Zapater

P. 7
Clitoria
Txaro Fontalba

P. 15
Traducción de pantalla
Amaya Suberviola

P. 23
La ideología del amor
Amaia Molinet

P. 65
To let go
Laida Aldaz

P. 73
*Debajo de mi almohada
vivirán todas mis cosas*
María Jiménez Moreno

P. 83
Dulce trago agri dulce
Fermin Jiménez Landa

P. 91
Murmuro
Marcos N. Sayas

El Centro de Arte Contemporáneo de Huarte, en colaboración con el Departamento de Cultura y Deporte del Gobierno de Navarra, lanza cada año el Programa de Ayudas a las Artes Plásticas y Visuales para la realización de proyectos inéditos de arte contemporáneo. El objetivo del programa es fomentar la investigación, la producción de obra, la difusión y consolidación de les artistas navarres, apoyando a les creadores en la producción y publicación de proyectos artísticos.

Esta publicación acompaña a la exposición realizada en la Sala de la Muralla de Baluarte entre el 25 de agosto y el 24 de septiembre de 2023, en la que se muestran los proyectos desarrollados por les beneficiaries de las ayudas en la modalidad de producción. En la convocatoria de 2022, les artistes navarres seleccionades han sido Laida Aldaz, Txaro Fontalba, Fermín Jiménez Landa, María Jiménez Moreno, Amaia Molinet, Marcos N. Sayas y Amaya Suberviola.

Juan Zapater, quien formó parte del jurado que otorgó las Ayudas junto a Celia Martín Larumbe y Greta Alfaro, es el autor del texto que recoge esta publicación. Agradecemos a todes les participantes en el programa su generosidad y buen hacer para que este se pueda realizar cada año.

Uharte Arte Garaikideko Zentroak, Nafarroako Gobernuako Kultura eta Kirol Departamentuarekin elkarlanean, Arte Plastiko eta Ikusizkoetarako Laguntzen Programa urtero abian jartzen du, arte garaikideko proiektu argitaragabeak egiteko. Programaren helburua ikerketa, obra-ekoizpena, artista nafarroen zabalakundea eta sendotzea sustatzea da, sortzaileei proiektu artistikoak ekoizten eta argitaratzen lagunduz.

Argitalpen hau Baluarteke Harresiaren Aretoan 2023ko abuztuaren 25etik irailaren 24ra bitartean egindako erakusketarekin batera dator. Bertan, ekoizpen-modalitateko laguntzen onuradunek garatutako proiektuak erakusten dira. 2022ko deialdian Laida Aldaz, Txaro Fontalba, Fermín Jiménez Landa, María Jiménez Moreno, Amaia Molinet, Marcos N. Sayas eta Amaya Suberviola izan dira hautatuak.

Juan Zapater da, Celia Martín Larumbe eta Greta Alfaroekin batera Laguntzak eman zituen epaimahaiko kidea, argitalpen honek jasotzen duen testuaren egilea. Eskerrak eman nahi dizkiegu programan parte hartu duten guztiei, eskuzabaltasunez jokatzearagatik eta lan ona egiteagatik programa urtero posible egin ahal izateko.

Siete Encuentros en Pamplona 2023

Zazpi Topaketa

Iruñean, 2023

Cuando estas líneas comienzan a escribirse hoy, 26 de enero de 2023, no hay todavía constancia de cómo, cuándo y dónde se expondrán los 7 proyectos que alimentan esta propuesta generada a lo largo de 2022.

Lo que no admite dudas es que se hará esa presentación y que el Centro Huarte, no solo ha renovado su compromiso con el arte contemporáneo sino que representa algo así como el último y quizá único refugio, donde pueden encontrar apoyo público aquellas personas que pertenecen a algo tan desdibujado en este terreno como es la creación de arte contemporáneo en nuestra comunidad artística.

Mientras reordeno los datos para esbozar una cartografía líquida —*puesto que nada todavía se ha solidificado*—, percibo que todo en este viaje está por consolidar. No obstante, al forjar esta mínima introducción a partir de la naturaleza, características e intenciones de estas siete propuestas, siento que resulta curioso que todas ellas se hayan concretado justo cuando se conmemoraban los cincuenta años de los Encuentros de Pamplona 1972.

De modo que comenzaremos rememorando aquel verano de 1972, para recorrer imaginariamente las calles de aquella ciudad fragmentada, pobre y provinciana, en la que se conjuraron una serie de referentes artísticos, en su mayor parte, bastante ajenos e ignorantes de lo que significaba *ser de Pamplona*.

Si como decía **Antonio Machado**: «todo lo que se ignora, se desprecia», buena parte de aquel enjambre artístico, se enfrentó a la invitación bajo la consigna de hacer en la ciudad más conservadora de España —*la más facha decían algunos*— la acción artística más radical

Lerro hauek idazteari ekin zaion egun honetan, 2023ko urtarrilaren 26an, oraindik ez daki-gu nola, noiz eta non aurkeztuko diren 2022an zehar sortutako proposamen hau elikatzen duten 7 proiektuak.

Dudarik sortzen ez duena zera da, aurkezpene egin egingo dela eta Uharte Zentroak, arte garaikidearekiko konpromisoa berritzeaz gain, gure komunitate artistikoan arte garaikide sortzen duten pertsonen (esparru honetan hain zehaztugabea den horren parte direnak) babes publikoa aurki dezaketen azken babeslekua eta agian bakarra irudikatzen duela.

Kartografia bat —likidoa, ezer ez baita solido bihurtu oraindik— zirriboratu ahal izateko datuak berrordenatzen ditudan bitartean, ohartu naiz bidaia honetan dena dagoela finkatzeko. Aitzitik, sarreratxo hau 7 proposamenen izate, ezaugarri eta asmoetatik abiatuta egitean, bixia iruditzen zait Iruñeko 1972ko Topaketen berrogeita hamargarren urteurrena ospatzeko unean zehaztu izana guztiak.

Beraz, hasteko, 1972ko uda hura ekarriko dugu gogora, irudimenaren bidez hiri zatitu, pobre eta herrikoi hartako kaleetan barna ibiltzeko. Hiri horretan, erreferente artistiko batzuk batu ziren, eta gehienek ia ez zekiten “Iruñekoa izatea” zer zen.

Antonio Machadok esaten zuen: “Ezagutzen ez den guztia mespretxatu egiten da”. Hala, Espainiako hiri kontserbadoreenean (batzuen esanetan, “faxistena”) garaiko ekintza artistiko erradikalena eta garaikideena egitearen kontsignari jarraikiz egin zioten aurre gonbidapenari artista multzo horretako askok. Ez da egia Iruña bakarrik kolpista arrakastatsuen kuartel nagusia zenik, ezta “*Pamplona ambiente sano, curas en invierno y toros en verano*” (Iruña, giro

y contemporánea de su tiempo. Ni es cierto que Pamplona/Iruña fuera solo un cuartel general de golpistas con éxito, ni aquel perverso lema de «Pamplona ambiente sano, curas en invierno y toros en verano» merecía representar a una población mortificada por muchas cuestiones, pero indubitavelmente activa pese a la escasez de medios, conocimiento y experiencia artística.

Bastaría con recorrer las calles del Casco Viejo en estos días para, como con un rosario macabro, cuenta a cuenta, misterio a misterio, percibir sembrada entre los adoquines y losetas de su pavimento, la sangre derramada en los años 30 y 40. Esa es la razón fundamental de la pobreza económica y cultural, ahí se inscribe el origen de ese miedo encadenado que en el 72 hervía a fuego lento.

No corresponde a esta introducción bucear en una efeméride que ya contó con un aparato reflexivo, me temo que más superficial de lo que costó y decididamente más autocomplaciente de lo que debía, para jubilar(se) por aquel cincuenta aniversario de los Encuentros del 72.

Mientras hace un año figuras en su mayor parte ajenas al arte contemporáneo, y a lo que aconteció aquella semana imposible de junio de 1972, hablaban sobre todo de sí mismas, siete artistas forjaban estas propuestas para ellos y para los demás. Entre las múltiples lecturas que su hacer nos permite extraer ahora, no es menor aquella que nos recuerda que entre aquellos polvos del final del franquismo, entre aquellas extravagancias más inocentes de lo que creían y más valiosas de lo que pensaron algunos, y estos lodos germinadores, se establece una evidente vinculación. Los siete artistas aquí reseñados o no habían nacido en 1972 o no tenían edad suficiente como para participar en aquellas celebraciones; pero su trabajo actual no podría haberse dado de no haber existido en aquel tiempo las acciones de gentes como **John Cage, David Tudor, Steve Reich, Laura Dean, Dennis Openheim, el grupo ZAJ, Sylvano Bussotti, Isidoro Valcárcel Medina** y el **Equipo Crónica**, entre otros. Estos siete artistas navarros hoy portan aquellas antorchas cuyo fuego nunca cesa.

osasuntsua: neguan apaizak eta udan zezanak) lelo gaiztoak hainbat konturengatik zigortutako biztanleria —baina dudarik gabe aktiboa zena, baliabide, ezagutza eta esperientzia artistikoa falta bazuen ere— ordezkatzeari merezi zuenik.

Nahikoa litzateke egunotan Alde Zaharreko kaleetan ibiltzea, arrosario makabro bat eskuetan, bihiz bihi, misterioz misterio, 30eko eta 40ko hamarkadetan isuritako odola hautemateko bide-zoruko galtzada-harrien eta lauzen artean. Hori da pobrezia ekonomiko eta kulturalaren funtsezko arrazoia, hor grabatzen da 72an su geldoan irakiten zuen kateatutako belduraren jatorria.

Sarrera honi ez dagokio efemeride horretan murgiltzea, izan baitzuen gogoetarako aparatu bat —susmatzen dut kostatu zena baino azalekoagoa izan zela, behar baino autokonplazentzia gehiagokoa seguru— 72ko Topaketen 50. urteurrena (auto-)ospatzeko.

Duela urtebete, oro har arte garaikidearekin eta 1972ko ekaineko aste ezinezko hartan gertatutakoarekin lotuta ez zeuden pertsonen batik bat haiei buruz hitz egiten zuten bitartean, zazpi artistak proposamen hauek sortzen ari ziren haientzat eta besteontzat. Orain egin ditzakegun irakurketa ugarien artean, frankismoaren amaierako hauts haien, batzuek uste zutena baino inozenteagoak eta baliotsuagoak ziren nabarmenkerien eta lohi ernatzaile hauen arteko lotura nabarmena dela gogorarazten diguna ez da gutxiago. Hemen aipatutako 7 artistak 1972an ez ziren jaio edo gazteegiak ziren ospakizun horietan parte hartzeko, baina haien egungo lana ez zen sortuko garai hartan pertsona hauen ekintzak gertatu izan ez balira: **John Cage, David Tudor, Steve Reich, Laura Dean, Dennis Openheim, ZAJ taldea, Sylvano Bussotti, Isidoro Valcárcel Medina** eta **Equipo Crónica**, besteak beste. Nafarroako 7 artista hauek inoiz itzali ez diren lastargiak daramatzate orain.

Clitoria

Kaleidoscopias (I), 2022
Expositor giratorio en metal esmaltado y tarjetas postales
175 x 50 x 50 cm



Kaleidoscopias (I), 2022
Esmaltatutako metalean egindako erakusketari birakaria eta postal-txartelak
175 x 50 x 50 cm

En 1986 conocí a **Txaro Fontalba**. Con ello significo que fue en ese año cuando tuve noticia de su existencia y de su trabajo.

Desde entonces, de manera intermitente pero sin faltar jamás a la cita, de vez en cuando me llegan noticias de ella; de sus creaciones y de esas incursiones expositivas donde siempre, a través de sus propósitos plásticos, percibo una inteligente beligerancia que el paso del tiempo no ha hecho sino fortalecer.

También, pero más de vez en cuando, nos solemos encontrar al azar, en tránsito, en cualquier lugar. En esos cruces, no hace falta que lo digamos con la ayuda del verbo. Sin hablar ambos nos ratificamos en la convicción de que cada uno continúa donde quiere estar. Y eso es algo que invariablemente resulta sanador, sobre todo en época de permanencias fugaces y desfalecimientos alimenticios.

La suya —me refiero a su permanencia en la militancia activa del arte— se muestra tan perceptible en sus estilemas, tan rotunda en sus formulaciones, que resulta indisociable de ese (su) universo empeñado con el cuerpo femenino. A ese cuerpo femenino, objeto de asedios y recelos, pero sujeto de un deseo de placer y libertad será a donde debamos dirigir la atención ante esta acción recogida bajo el nombre de *Clitoria*.

No se confíen. En todas y cada una de las propuestas de **Txaro Fontalba** nada es lo que parece y todo lo que es conlleva la conformidad de una realidad antagónica. Ese consorcio paradójico, esa necesidad de goce asaltada por una pulsión letal, acota una reflexión de la que el **marqués de Sade** no saldría indemne, perdido en la tela de araña que con tan poca ingenuidad trenza la autora de *Clitoria*.

Cuando hace ya años, **Fontalba**, liberada del peso académico, miró a los ojos a **Marcel Duchamp** y forró su *urinario* feminizando su sentido conceptual, no sonaban tan fuerte como ahora las campanas del feminismo contemporáneo. No había sostenibilidad ni cuotas de género bendecidas desde ningún poder establecido.

Al hacer lo que hacía, al subvertir el significado, en algún modo, **Fontalba** se adelantaba al *For the Love of God* (2007) de **Damien Hirst**. En su(s) *urinario(s)*, no había rastro alguno de los 8.601 diamantes incrustados en la reproducción de la calavera

1986an **Txaro Fontalba** ezagutu nuen. Horrekin adierazi nahi dut urte horretan izan nuela haren existentziaren eta lanaren berri.

Geroztik, aldizka baina hutsik gabe, hari buzko berriak iristen zaizkit; haren sorkuntzenak, baita adierazpenezko sartu-irtenenak ere, non, dauzkan helburu plastikoen bidez, denboraren iraganak loratu duen beligerantzia burutsu bat hautematen baitudan beti.

Halaber, baina oso noizean behin, zoriz topatzen gara, iragaitzaz, edonon. Gurutzatzen garen une horietan, ez dugu berbaren beharrik gauzak esateko. Txintik esan gabe, ziurtasun osoz berresten dugu bakoitza nahi duen tokian dagoela. Eta hori sendagarria da beti, bereziki egonaldi lasterren eta janari-ahularen garaian.

Harena (artearen militantzia aktiboan egoiteaz ari naiz) hain argi hautematen da haren estilema eta formulazioetan, non ezinezkoa baiten gorputz femeninoekin tematuta dagoen “bere” unibertso horretatik bereiztea. Gorputz femenino horretara —jazarpen eta mesfidantzen objektu, baina plazer- eta askatasun-desiraren subjektu dena— zuzendu beharko dugu arreta *Clitoria* izeneko ekin-tzaren aurrean.

Ez fidatu. **Txaro Fontalbare**n proposamen guzti-guztietan ezer ez da dirudiena, eta den guztiak errealitate antagoniko baten adostasuna dakar berarekin. Partzuergo paradoxiko horrek edo irrika hilgarri batek erasotutako gozamen-behar horrek mugatzen duen hausnarketak **Sadeko markesari** berari ere eragingo lioke, *Clitoria* lanaren autoreak hain inozentzia gutxiarekin ehundutako armiarma-sarean galduta.

Duela urte dezente, pisu akademikotik askatuta **Fontalbak Marcel Duchampi** begietara begiratu zionean eta “haren pixatokia” forratu zuenean haren zentzu kontzeptuala feminizatzeke, feminismo garaikidearen ez-kilen hotsa ez zen egungoa bezain ozena. Ez zegoen jasagarritasunik, ez ezarritako inolako boterek bedekinatutako genero-kuotarik.

Egiten zuena egitean, esanahia iraultzean, **Damien Hirsten For the Love of God** (2007) lanari aurreratzen zitzaion **Fontalba** nolabait. Bere pixatoki(et)an ez zegoen **Hirstek** giza-garzuraren erreprodukzioan —boterea eta arrakasta inspiratzen zituen luxuzko vanitas hartan— txertatutako 8.601 diamanteen arrastorik. *Lehman Brothers Holdings Inc.* enpresaren

Hysterical playground (ii) (detalle), 2022
Baldosas, pintura de caucho, contrachapado,
pintura acrílica y muelle esmaltado
81 x 200 x 200 cm



Hysterical playground (ii) (xehetasuna), 2022
Lauzak, kautxuzko pintura, kontrachapata,
margo akrilikoa eta esmaltatutako malkukia
81 x 200 x 200 cm

humana, aquella vanitas de lujo que inspiraba al poder y al éxito de **Hirst**. Su precio de salida, en aquel año previo al derrumbe de la *Lehman Brothers Holdings Inc.*, era de 99 millones de dólares. **Damien Hirst** afirmó en aquel tiempo que su calavera —inspirada por un cráneo azteca que había visto de niño en el Museo Británico— representaba «la victoria definitiva sobre la muerte».

Los urinarios de **Fontalba**, recubiertos con materiales infinitamente más humildes y sencillos, no habían sido creados para alimentar el narcisismo grotesco del neocapitalismo. Solo pretendían hablar de la invisibilización de lo femenino, apelar al derecho a la resistencia y hacerlo desde uno de los iconos del arte contemporáneo.

Había algo de predestinación, de paradoja y de intención insolente y perturbadora en que **Txaro Fontalba**, la *Rosario de la fuente blanca*, se apropiara de la *Fountain* (1917) de **Duchamp**, el maestro del *readymade* y del apropiacionismo, para ganarle por la mano esbozando un jaque mate a un maestro del ajedrez. Y como a comienzos del siglo XX había hecho la persona a la que **Breton** designaba el «hombre más inteligente del siglo», una mujer simplemente inteligente preparaba su llegada al siglo XXI realizando múltiples variaciones sobre una fuente y sobre la mirada expectante de la subjetividad de quien debe observar.

Al maquear el sentido de la piedra angular del nacimiento del arte contemporáneo,

gainbeheraren aurreko urte hartan, irteerako prezioa 99 milioi dolarrekoa izan zen. **Damien Hirstek** garai hartan baieztatu zuen bere garzurak, Britainiar Museoa gaztetan ikusitako burezur azteka batean inspiratuta zegoena, “heriotza erabat garaitzea” irudikatzen zuela.

Fontalbaren pixatokiak estaltzen dituzten materialak askoz umilagoak eta sinpleagoak dira eta ez ziren sortu neokapitalismoaren nartzismo groteskoa elikatzeke. Besterik gabe, tasun femeninoak ikusezin bihurtzeari buruz hitz egitea eta erresistentziaren eskubidea apelatzea zuten helburu, eta, horretarako, arte garaikidearen ikonoetako bat erabiltzea.

Predestinazio, paradoxa eta asmo lotsagabe eta aztoragarri izpi bat zegoen **Txaro Fontalbak**, “iturri zuriaren” *Rosarioak*, **Duchamp**en (*readymade*-aren eta apropiacionismoaren maisua) *Fountain* (1917) bere egitean xake-mate keinua eginez xake-maisu bati aurrea hartzeko. Eta XX. mendearen hasieran **Breton**en esanetan “mendeko gizonik inteligentee-nak” egin zuen bezala, sinpleki inteligentea zen emakume bat XXI. menderako iritsiera prestatzen ari zen, iturri bati hamaika aldaketa eginez, baita begiratu behar duenaren subjektibitatea begirada erneari ere.

Arte garaikidea sortu zuen harri angeluarra-zen zentzua apaintzean, **Fontalbak** ia bakarkako bidetari ekin zion; horma sendo bat pitzatu zuen bide bat irekitzeko, zeina gaur egun normalizazioaren parte den, zehar-begiratzen duten susmopean beti.



Razors, 2022
Inprimatze digitala, tinta, tenpera eta paper gaineko akrilikoa
35 x 35 cm/ud

Fontalba iniciaba un sendero casi en solitario; resquebrajaba un sólido muro para abrir un camino que hoy parece ya formar parte de una normalización siempre bajo sospecha por parte de quienes miran todo de reojo.

Leo, y no de soslayo precisamente, sobre lo que otras miradas perciben en el hacer de **Clitoria** y lo que la propia **Txaro** ha señalado de su propio ensayo. Todo resulta cercano, con roce de piel y con el agrio sabor y saber de la hiel.

Se afirma, se nos dice, que estamos ante «un trabajo de simbolización del placer femenino, particularmente del clitoris, un órgano históricamente invisibilizado, simbólicamente tachado y en ciertos lugares físicamente mutilado. El placer femenino nunca ha sido una prioridad. El clitoris, ausente de los discursos, de las mentes y de los cuerpos mismos, ha sido durante mucho tiempo el órgano del placer borrado».

No hay duda. De lo que se ocupa esta artista persevera en conjurar una invisibilidad histórica. Al hacerlo así, su voz protege y sus textos artísticos apuntan a reafirmar «una nueva geografía estética y política del placer, más allá de la matriz heterosexual».

Antes de continuar por los laberintos del clitoris, el placer y la carne, ubiquemos un poco

Clitoria lanaren egitean beste begirada batzuek hautematen dutena eta **Txarok** bere saiakerari buruz adierazi duena irakurtzen dut, eta ez preseski zeharka. Dena da hurbilekoa, azalak ukitua, behazunaren zapore eta jakite mingotsekoa.

Baieztatzen da, jakinarazten zaigu, «plazer femeninoaren sinbolizazio-lana d[el]a, bereziki klitoriarena; historikoki ikusezin bihurtu den, sinbolikoki ezabatu den eta leku batzuetan fisikoki mutilatzen duten organoa. *Emakumeen plazera ez da inoiz lehentasun izan*. Klitoria diskurtsoetatik, gogamenetik eta gorputzetatik kanpo egon da, eta plazer ezabatuaren organoa izan da luzaroan».

Zalantza izpirik gabe, ikusezintasun historiko bat uxatzeari eusten dio artista honen egiteak. Hala, haren ahotsak babestu egiten du, eta haren testu artistikoek «plazeraren geografía estetiko eta politiko berria baieztatze[n dute], matrice heterosexualetik harago».

Klitoriaren, plazeraren eta haragiaren labirintoetan barna jarraitu aurretik, koka dezagun pertsonaia hobekixeko. Artistei laguntzen dieten ohar biografiko urrun eta urruntzaile horietako bat ekarriko dut. Zera dio: «**Txaro Fontalba** (**Rosario Fontalba Romero** jaioa 1965ean Iruñean, Espainia) eskultore eta margolari nafarra da, generoaren gaia lantzen duena batik

más al personaje. Reproduzco una de esas distantes y distanciadoras notas biográficas que suelen acompañar a los artistas donde dice: «**Txaro Fontalba** (nacida como **Rosario Fontalba Romero**, en 1965 en Pamplona, España) es una escultora y pintora navarra que ha centrado su obra en la cuestión de género, tratando temas como las relaciones sentimentales, el amor o el cuerpo sexuado femenino. En este sentido, ha recibido la influencia de figuras como **Julia Kristeva**, **Paul B. Preciado**, **Camille Paglia**, **Eva Illouz**, **Judith Butler** y **Donna Haraway**». La explicación resulta cabal, se adecúa en la medida que sea posible, a definir una biografía y una identidad en pocas líneas. Así que entenderemos que con estas coordenadas puede rastrearse qué hace **Txaro Fontalba** y por qué.

Sus primeros pasos comenzaron a darse pronto. Ya durante la carrera empezó a exponer. Tras ella, inaugura una trayectoria que tiene algunas estaciones de obligado detención como *Pleura* (1989), *Respiraderos* (1992), *Bestiario de amor* (1995) y *Filtros de amor* (1997); para cerrar el siglo XX con *Anorexia* (1998).

En esta última acción en el crepúsculo de los años 90, **Fontalba** se preparaba para el nuevo siglo cuestionándose «el complejo papel de la corporalidad femenina» y su servidumbre con respecto al canon de belleza social hegemónico y las calamidades que se imponen, y atormentan, la vida de las mujeres.

El monstruo menguante (2007), *Carne, amor y fantasmas* (2007), *Las horas atragantadas* (2011), *Yo, la peor de todas* (2017), *Deslenguadas y otras tartamudas* (2018) y *Las maquinistas* (2020) son otras citas fundamentales para rastrear el proceso de **Fontalba** y para poder completar lo que *Clitoria*, proyecto iniciado en 2019, ahora nos demanda.

Todo surgió cuando, al decir de la propia creadora, navegando en internet se encontró con una cita de la ensayista y activista social de EE.UU. **Barbara Ehrenreich**: «Con toda la charla sobre cómo estimularla, pensarías que la economía es un clitoris gigante».

Entonces, relataba **Txaro Fontalba**, cayó en la cuenta de que «aunque en obras anteriores ya había trabajado con órganos sexuales femeninos y masculinos, no había tocado el clitoris hasta ahora. ¿Por qué?, me pregunté. Creo que

bat. Harreman sentimentalak, maitasuna eta emakumeen gorputz sexuduna jorratu ditu, besteak beste. Zentzu horretan, hauen eragina jaso du: **Julia Kristeva**, **Paul B. Preciado**, **Camille Paglia**, **Eva Illouz**, **Judith Butler** y **Donna Haraway**». Azalpenak zentzuzkoa dirudi, ahal den moduan moldatzen da biografía eta identitatea lerro gutxitan definitzen. Hor-taz, ulertuko dugu koordinatu horiekin posible dela zer eta zergatik egiten duen arakatzea.

Fontalba goiz hasi zen urratsak ematen. Karreran jada hasi zen erakusketak egiten. Karrera amaitu ondoren, nahitaezko geldialdiak dituen ibilbideari ekin zion: *Pleura* (1989), *Respiraderos* (1992), *Bestiario de amor* (1995), *Filtros de amor* (1997), eta, XX. mendea ixteko, *Anorexia* (1998).

90.eko hamarkadaren azkeneko ekintza horretan, **Fontalba** mende berrirako prestatzen ari zen «gorputzasun femeninoaren rol konplexua» zalantzan jarri, baita haren morrontza ere, edertasun sozial hegemonikoaren kanonarekiko eta emakumeen bizitzari ezartzen zaizkion eta oinazetzen duen zorigaitzekiko.

El monstruo menguante (2007), *Carne, amor y fantasmas* (2007), *Las horas atragantadas* (2011), *Yo, la peor de todas* (2017), *Deslenguadas y otras tartamudas* (2018) eta *Las maquinistas* (2020) funtsezko beste hitzordu batzuk dira **Fontalbare**n prozesua arakatzeke eta *Clitoria* (2019an hasia) proiektuak orain eskatzen diguna osatzeko.

Sortzaileak berak azaltzen duenez, Interneten ari zela **Barbara Ehrenreich** saiakera-idazle eta gizarte-aktibista estatubatuarren aipua aurkitu zuenean hasi zen dena: «Estimulatzeari buruzko berriketa hori guztia erekin, badi-rudi ekonomia klitori erraldoi bat dela».

Orduan ohartu zen aurreko obretan sexu-organo femenino eta maskulinoak landu arren, klitoria oraindik ez zuela ukitu. «'Zergatik?', *galdetu nion neure buruari*. Uste dut **Barbara Ehrenreich**en esaldiak ohartarazpen bat egin zidala, eten egin behar nuen une batez ahaztu nintzelako».

Etetea, aurrera egin ahal izateko. Emakumearen gorputzaren inguruan bor-bor egiten duen lurralde horretan etengabe bira eta buelta aritzea.

Ikuspegia pixka bat aldeniduz gero, ikusten da **Fontalbare**n ekintza guztiek izendatzaile komun bat daukatela, eztabaidatze partisano

la frase de **Barbara Ehrenreich** fue una llamada de atención de que me había olvidado de algo en lo que me tenía que haber detenido».

Detenerse para avanzar. Girar y girar de forma incesante sobre ese territorio afin que bulle en torno al cuerpo de la mujer.

Vistas en perspectiva, las diferentes acciones de **Fontalba** poseen invariablemente un denominador común, una idéntica actitud para un cuestionamiento partisano. En toda plasmación plástica de sus citas, las exposiciones de **Txaro Fontalba** no se limitan a mostrar, a ser vistas y a dejarse ver. Sus piezas interpelan a quien las observa, exigen posicionamientos, incomodan tanto como seducen, pero desde luego no cometen la banalidad de incurrir en la obviedad ni en el simplismo.

En todas sus citas hay siempre algo de encuentro y aspereza, hay mucho de excitación y de exigencia. Al recordarlas como partes de un todo, se percibe un balanceo permanente, un proceso materialista y didáctico de tesis y antítesis, de acción y reacción, de masculinidad y de feminidad, un duelo entre identidad y diferencia.

Incardinada en ese proceso, *Clitoria* nos retrotrae a un hecho sensible, es una expedición contra la ignorancia. En esa cruzada navega **Fontalba** para ratificarse en lo que siempre, de una manera u otra ha hecho: rescatar de la invisibilidad, en este caso, al órgano femenino fuente (otra vez la fuente) del placer.

Si fue una reflexión de la periodista norteamericana **Barbara Ehrenreich** (EE.UU., 1941-2022), fallecida hace escasos meses, la que puso en marcha el proyecto de *Clitoria*, en su culminación vemos (re)producirse esa rima, esa similitud de escalofrío que nos atraviesa cuando se abrochan coincidencias extraordinarias.

Así, entre **Barbara** y **Txaro**, entre la autora de *Causas naturales: cómo nos matamos para vivir más* (2018) y la artista de *Clitoria*, hay señales inequívocas de un sincronismo que traspasa el discurso para bucear en la emoción. Un hálito presente, el sobrevuelo desdramatizado de un *memento mori* que, desde *—me atrevería a decir—* su adolescencia, ya estaba presente en **Fontalba**. Lo estaba sin duda el día que decidió transformar el urinario de **Duchamp** con un forro *red velvet*.

batekiko jarrera berbera. Bere hitzorduen islatze plastiko orotan, **Txaro Fontalbare** erakusketak ez dira mugatzen erakustera, besteek ikustera eta ikusgai egotera. Haren piezek begira daudenak interpelatzen dituzte, jarre-rak hartzera derrigortzen dituzte, enbarazu eta seduzitu egiten dute, baina ez dira gauza jakinetan edo sinplismoan erortzeko bezain hutsalak, inolaz ere.

Bere erakusketa guztiak dira topagune eta lazgune, kitzikaduraz eta exigentziak beteak. Osotasun baten zati gisa gogoratzean, kulunka etengabe bat hauteman daiteke, prozesu materialista eta didaktiko bat, tesi eta antitesiarena, akzio eta erreakzioarena, maskulinitate eta feminitatearena, identitatearen eta desberdintasunaren arteko duelu bat.


Prozesu horretan inkardinatuta, *Clitoria* lanak atzera eramaten gaitu gertaera sentikor batera; ezjakintasunaren aurkako espedizio bat da. Gurutzada horretan dabil **Fontalba**, beti modu batera edo bestera egindakoa berresteko: gauzak ikusezintasunetik salbatzea —kasu honetan, plazeraren iturri den organo femeninoa.

Duela hilabete batzuk hil zen **Barbara Ehrenreich** (AEB, 1941-2022) kazetari estatubatuararen hausnarketa bat izan zen *Clitoria* proiektua martxan jarri zuena, eta erri-ma hori ikusten dugu haren une gorenean, ohiz kanpoko kointzidentziak lotzen direnean zeharkatzen gaituen hotzikara sortzen duen antzekotasun hori.

Hala, **Barbara** eta **Txaroren** artean, *Causas naturales: cómo nos matamos para vivir más* (Kausa naturalak: nola hiltzen dugun elkar gehiago bizitzeko) (2018) lanaren egilearen eta *Clitoria* proiektuaren artistaren artean badaude emozioan murgiltzeko diskurtsoetik harago doan sinkronismo baten seinale argiak. Haize leun bat, *“Memento mori”* esapideari laztasuna kentzeko hegaldia, **Fontalbare**ngan nerabea zenetik —*esango nuke*— bazegoena. **Duchamp**en pixatokia *red velvet* forro batekin eraldatzea erabaki zuen egunean bazegoen, dudarik gabe.

Funny Games filmaren harira egindako elkarrizketa batean, **Michael Hanekek** esan zidan posible zela ikus-entzuleek bere zinema maltzurra zela pentsatzea, mundua hobe bihurtzeko itxaropena zeukalako, eta, beraz, munduan bizitzeak eta sufritzeak merezi zuela uste zuelako. Horregatik jaten dizkigute barrenak

Hermas, 2022-23
Neón flex y postales
Dimensiones variables



Hermas, 2022-23
Neón flex eta posta-txartelak
Dimentsio aldakorak

Me decía **Michael Haneke** en una entrevista con motivo del estreno de *Funny Games*, que su cine podría percibirse como cruel para el espectador porque él todavía tenía la esperanza de que el mundo podría mejorar, por lo tanto, merecía ser vivido y sufrido. Por eso sus películas corroen; por eso sus historias rara vez se compadecen de sus personajes. «En otro caso —decía—, haría comedias para ganar dinero».

En **Fontalba**, como en **Ehrenreich**, no hay atisbo alguno de autocomplacencia ni piedad benevolente, ni para ellas mismas ni para el resto... porque reclaman esperanza. Ambas, **Fontalba** y **Ehrenreich**, referencian a la economía y al dinero como pretexto alienante, como referente de compra y venta en donde el cuerpo femenino es objeto de deseo y víctima de su negación para quien no es capaz de reconocerlo como sujeto.

Cuando **Txaro Fontalba** le contaba a la periodista **Paula Echeverría**¹: «Me interesa señalar cómo se infringe daño en el cuerpo de la mujer justamente en el lugar del placer. Cómo se le resta o se le roba ese placer, y eso es un síntoma o una metonimia de la devaluación de la mujer en la sociedad», arrojaba luz sobre ese proceder dialéctico y

Hanekeren filmek; horregatik haren istorioetan ia inoiz ez dago pertsonaiekiko gupidarik. «Beste egoera batean, komediak egingo nituzke dirua irabazteko», esaten zuen.

Fontalbare zein **Ehrenreichen** lanetan ez dago ez autokonplazentzia ez borondate oneko errukiaren izpirik, ez haientzat ez besteontzat... itxaropena irmoki eskatzen dutelako. **Fontalba**k eta **Ehrenreich**ek, biek, ekonomia eta dirua desenkusa alienatzaile gisa aipatzen dituzte, salerosketa baten erreferente gisa, non gorputz femeninoa desiraren objektu den, baita horren ezeztapenaren biktima ere subjektutat onartzeko gai ez denarentzat.

«Emakume bati justu plazeraren lekuan mina nola eragiten zaion adieraztea interesatzen zait. Nola kentzen edo lapurtzen zaion plazer hori, eta gizartean emakumearen baltioa gutxitzearen sintoma edo metonimia bat da hori». **Txaro Fontalba**k **Paula Echeverría** kazetariari hori esan zionean¹, argi egin zion jokabide dialektiko eta paradoxiko horri, zeinaren gidalerroetatik ezartzen baituen bere pentsamendua.

«Plazer hutserako tokia da klitoria, eta hura kentzeak ez dio ugalketa-funtzioari eragiten. Ablazioa, klitoria ezabatzea eta, harekin batera, sexu-plazera, emakumeen gizarte- eta

1. Entrevista publicada en Noticias de Navarra el 8-12-19.

1. 2019-12-08an argitaratutako elkarrizketa Noticias de Navarra-n.

paradójico desde cuyas directrices se establece su pensamiento.

«El clitoris es un lugar para el puro placer y su eliminación no compromete la función reproductiva. La ablación, la borradura del clitoris, y por lo tanto del placer sexual, sería una metonimia del estatus social y sexual de las mujeres» añadía en la citada entrevista **Fontalba** significando la naturaleza de *Clitoria*.

Antes, mucho antes de que el *Me Too* pusiera un poco de equilibrio en este lamentable estado asimétrico patriarcal, los textos artísticos de **Txaro Fontalba** ya no hacían concesiones. Por eso, buena parte de sus creaciones, como acontece por ejemplo con las propuestas de **Louise Bourgeois**, a veces, incomodan tanto. Su interrogación pellizca al público y su desvergüenza lo estremece. Porque apela a su inanición y ésta lo convierte en un público debilitado, comatoso, agonizante. *Clitoria* nos recuerda que en la hora de los zombies, no hay otro impulso que el de devorar a los vivos.

Como en **Bourgeois**, la memoria, el sexo, la inseguridad y el cuerpo femenino se transforman en las herramientas y los materiales de la obra de **Txaro Fontalba**. De ellos extrae ese relato de eterno retorno, mantra incontestable de lo que la propia artista ha afirmado: «la mutilación marca a la mujer robando, restando, sustrayendo una parte de su cuerpo y no solo eso, también la capacidad del placer».

Cerraba su frase diciendo: «lo cual es terrible».

Tan terrible como cierto.

Como **Bourgeois**, **Fontalba** ni se amilana ni se detiene. Cuando ambas muestran una sonrisa en sus labios, incluso se parecen más allá del gesto biológico.

¿Por qué sonríen?

Sonríen y sonríen porque son conocedoras de que tras el clitoris hallarán el placer, la llave de una libertad que sistemáticamente se ha negado.

La razón es simple: el placer nos hace libres.

sexu-estatusaren metonimia litzateke” gehitu zuen **Fontalba** aipatutako elkarrizketan, *Clitoriaren* izatea adierazteko.

Me too mugimenduak egoera asimetriko patriarkal honetan oreka pixka bat inposatu baino askoz lehenago, **Txaro Fontalba**ren testu artistikoez jada utzi zioten amore emateari. Horregatik egiten dute hainbeste traba batzuetan bere sorkuntza gehienek, **Louise Bourgeois**en proposamenekin gertatzen den bezala, adibidez. Haren galderak ikus-entzuleei zimiko egiten die, eta haren lotsagabeke-riak, ikarutzen. Jan ez dezaten erregutzen die-lako eta horrek ikus-entzuleak ahuldu, koma egoeran eta hil zorian jartzen dituelako. *Clitoria* proiektuak gogorarazten digu zombien ordua dela, ez dago beste inpultsurik bizirik daudenak irenstea baino.

Bourgeoisen bezala, memoria, sexua, segurtasun-gabezia eta gorputz femeninoa eraldatu egiten dira, eta **Txaro Fontalba**ren tresna eta material bihurtu. Haietatik, betiereko itzulera daukan kontaketa ateratzen du, artistak berak baieztatu duenaren mantra eztabai-daezina: “Mutilazioak emakumea markatzen du haren gorputzaren zati bat ostuz, kenduz, erau-ziz, baina ez hori bakarrik, plazererako ahalme-na ere lapurtzen dio”.

Honela itxi zuen esaldia: “Eta hori izugarria da”. Izugarria bezain egiazkoa.

Bourgeoisen antzera, **Fontalba** ez da kikil-tzen, ezta eteten ere. Biek ezpainetan irribarrea dutenean, are antz handiagoa dute keinu bio-logikotik harago.

Zergatik egiten dute irribarre?

Etengabe egiten dute irribarre, badakitela-ko klitoriaren atzean plazera aurkituko dutela; sistematikoki ukatu den askatasunaren giltza.

Arrazoia sinplea da: plazerak aske egiten gaitu.

Traducción de pantalla

ST23006 (detalle), 2023
Óleo y rotulador sobre lino
97 x 146 cm



ST23006 (xehetasuna), 2023
Olio eta itxo gainezko errotilagailua
97 x 146 cm

Leo, de manera automática, casi como de pasada y sin apenas reparar a fondo en lo que se ha escrito, lo que dice la propia **Amaya Suberviola**. Según sus palabras, este (su) proyecto, que responde al nombre de *Traducción de Pantalla*: «se interesa por la forma en que cada era ha cambiado la pintura».

Me interpelo a mí mismo qué puede provocar la respuesta a dicha investigación, o más aún, hasta dónde pretende llegar ese interés, cuál es su naturaleza y cómo es posible reflejar todo ello.

Al mismo tiempo repaso, desde los posos que permanecen en mi memoria, el hacer de **Amaya Suberviola** durante los últimos años.

De ese modo, con recuerdos y preguntas, me enfrente de manera muy particular al puñado de huellas borrosas que permanecen, lo que no ha sido borrado por el olvido, y a las sensaciones que me rememoran algunas de aquellas pinturas que constituyen, o constituyeron, la parte nuclear de este ensayo plástico del que ahora se ocupa **Amaya Suberviola**.

Evoco los días inquietantes de 2021. *Días extraños* como los eran los de la película de **Kathryn Bigelow** con **Ralph Fiennes** y **Juliette Lewis** (1995). Extraño tiempo de incertidumbre social y amenazas pandémicas.

Es curioso. Ahora, en este 2023, a cada paso me asaltan —*supongo que también a los demás*— películas, novelas, cuadros... que afirman haber sido gestados en aquel afligido período de aislamientos y mascarillas. Así que no puedo evitar especular sobre cómo, dentro de unos años, cambiará nuestra percepción sobre lo que determinó y (nos) trastocó la Covid 19.

Acaso entonces podamos deci(di)r lo que ahora no podemos. ¿Cuál fue el verdadero impacto —*sin duda lo ha habido*— de la pandemia, las vacunas y los confinamientos, en la creación artística de aquí y ahora?

Entonces, solo entonces, podremos contestarnos sin el sudor emocional, acerca de cuál ha sido la forma en que esos días de extrañamiento cambiaron la pintura de la tercera década del siglo XXI.

Por avanzar en ese juego especular, imagino que en esos días por venir, tal vez una *Eva futura* inspirada por las páginas de **Villiers de L'Isle Adam**, podría observar las pinturas de **Amaya** para escudriñar, como

Amaya Suberviola berak esandakoa modu automatikoa irakurtzen dut, azal-azaletik, idatzitakoari sobera erreparatu gabe. Haren hitzetan, (bere) proiektu honi, *Traducción de pantalla* (Pantaila itzultzea) izenekoa, «aro bakoitzak pintura aldatzeko izan duen modua interesatzen zaio».

Neure buruari interpelatzen diot zer eragin dezakeen ikerketa horren erantzunak edo, are gehiago, noraino iritsi nahi duen interes horrek, zein den bere izaera eta nola den posible hori guztia islatzea.

Aldi berean, memorian geratzen zaizkidan hondarretatik, **Amaya Suberviola** azken urteetan egindakoa birpasatzen dut.

Horrela, oroitzapenen eta galderen bidez, oso modu berezian aurre egiten diet irauten duten arrasto lauso gutxiei, ahanzturak ezabatu ez duenari, eta **Amaya Suberviola** orain esku artean daukan saiakera plastikoaren nukleoa osatzen duten edo zuten pintura haietako batzuek gogorarazten dizkidaten sentsazioei.

2021eko egun aztoragarriak ekartzen ditut gogora. *Egun arraroak*, **Kathryn Bigelow**en filmekoak bezalakoak, non **Ralph Fiennes** eta **Juliette Lewis** agertzen baitziren. Ziurgabetasun sozialeko eta pandemia-mehatxuko garai arraroa.

Bitxia da. Orain, 2023an, une oro eta bat-batean iristen zaizkit itxialdiz eta maskaraz jositako denboraldi samin horretan sortu zirela baieztatzen duten filmak, eleberriak, koadroak... —*suposatzen dut besteoi ere gertatzen zaizuela*. Beraz, ezin dut saihestu espekulaztea urte batzuk barru nola aldatuko den COVID-19ak zehaztu zuenarekiko eta eragin zigun nahasmenduarekiko izango dugun pertzepzioa.

Baliteke orduan erabaki ahal izatea une honetan erabaki ezin dezakeguna. Zein izan zen pandemiaren benetako eragina —*egon egon baita, zalantzarik gabe*— espazio eta une honetako sorkuntza artistikoan?

Orduan, eta ez lehenago, izerdi emozionalik gabe erantzun ahal izango diogu galdera honi: nola aldatu zuten harridurazko egun haiek XXI. mendeko hirugarren hamarkadako pintura?

Espekulazio-joko horretan aurrera egitearren, imajinatzen dut **Villiers de l'Isle-Adam**en orrialdeek inspiratutako «*etorkizuneko*

ella hoy hace, esa metamorfosis de la forma tratando de comprender esos cambios. ¿Qué pensaría ese cyborg de esta *Traducción de pantalla*?

También podría acontecer que, en ese futuro inminente, cuando la IA se adueñe de todo —*recuerden que acabamos de pedir el primer tiempo muerto porque la humanidad y el humanismo empiezan a desmoronarse*— tal vez se haya culminado el aserto de que ya nada cambia. Como vislumbró aquel iluminado de **L'Isle Adam**, en ese futuro «la Naturaleza cambia, pero no la Andreida. Nosotros vivimos, morimos y ¿quién sabe...? La Andreida no conoce la vida, ni la enfermedad, ni la muerte. Está por encima de todas las imperfecciones, de todas las servidumbres y conserva la belleza del ensueño»².

Ya nos ocuparemos de la hora del ensueño. Para alivio de supervivientes y aviso de navegantes, ese futuro donde ya nada cambia no ha devorado, todavía, al presente. Ahora, de momento, nos abismaremos en el interés de **Amaya Suberviola** por dilucidar cuál es la forma en que la(s) realidad(es) mutable(s) cambiaron la manera de pintar y cómo eso se manifiesta en sus cuadros.

En consecuencia, retorno a aquellos días de 2021. Días que, pese al miedo sanitario y a la alarma social, transcurrían con serenidad cansada. La sensación de permanecer en un espejismo, sobre el que la sospecha de un experimento social sugería la amenaza de una distopía de baja intensidad, lo impregnaba todo con aire triste. Tan cerca y tan lejos de los *Espectros de Marx* de **Derrida**, aquello fue tan fantasmal que se diría que vivíamos entre vampiros.

Una pared separaba mi lugar de trabajo del estudio de **Amaya Suberviola**. La artista, nacida en Mendavia en 1993, hacía poco ruido. Apenas se dejaba notar. De no ser porque semana a semana sus cuadros crecían en número y las paredes del taller daban noticia de su quehacer constante, se diría que jamás pasaba algo en aquel tiempo raro, en aquel espacio de **BilbaoArte**.

2. Auguste Villiers de l'Isle-Adam (1886), *La Eva futura (L'Ève future)*, Madrid: M.A.R. Editor, 2020.

Eva» batek agian etorkizunean **Amayaren** pinturei begiratu ahalko ziela, **Amayak** orain egiten duen moduan, formaren metamorfosi hori arakatzeko, aldaketa horiek ulertze aldera. Zer pentsatuko luke ziborg horrek *Traducción de pantalla* lanari buruz?

Hurbileko etorkizun horretan ere, adimen artifiziala guztiaren jabe bihurtzen denean —*go-goan izan lehenengo hutsartea eskatu berri dugula, gizateria eta humanismoa gainbeheratzen hasi dira eta*—, gerta liteke dagoeneko ezertxo ere aldatzen ez denaren baieztapena burutzea. **De l'Isle-Adam** iluminatu hark aurreikusitako zuen bezala, etorkizun horretan: «Naturara aldatu egiten da, baina Andreida ez. *Gu, bizi, hil eta, batek daki... Andreidak ez du bizitza ezagutzen, ezta gaixotasuna edo heriotza ere*. Inperfekzio eta morrontza guztien gainetik dago, eta ametsetako edertasuna mantentzen du».

Ametsetako ordua beste une batean jorratuko dugu. Bizirik dirautenak lasaitzeko eta nabigatzaileak ohartarazteko, aldaketarik gertatzen ez den etorkizun horrek ez du oraina irentsi oraindik. Egun, momentuz, errealitate mudakorrek margotzeko modua nola aldatu zuten argitzeko **Amaya Suberviola** daukan interesean eta hori bere koadroetan adierazteko moduan barruratuko gara.

Oraingoz, 2021eko egun haietara bueltatuko naiz. Osasun-beldurra eta aztoramendu soziala bazeuden ere, egunak lasaitasun nekatu batekin igarotzen ziren. Ispilatze batean egotearen sentsazioak, esperimendu sozial baten susmoak distopia arin baten mehatxua iradokitzearekin batera, aire tristea ematen zion guztiari. **Derridaren Marx-en espektroak** laneatik hain hurbil eta hain urrun, hainbesteko mamu-itxura zeukan horrek, non banpiro artean bizi ginela esan zitekeen.

Horma batek banatzen zuen nire lantokia **Amaya Suberviola**ren estudiotik. Mendabian 1993an jaiotako artistak zarata gutxi ateratzen zuen. Ia ez zen igartzen. Aste batetik bestera haren koadroen kopuruaren hazkundeagatik ez balitz eta lantokiko hormek jarduera etengabea erakutsiko ez balute, pentsatuko genuke ia ez zela ezer gertatzen garai arraro hartan, **Bilbao Arteko** espazio hartan.

Hala eta guztiz ere, hilabete batzuk lehenago gertatzen zenaren oso bestelakoa zen dena. Protokolo zeritzenak inposatu ziren egoitza hartan (gelak, zentzuzko distantziak,



Y sin embargo todo era muy diferente a lo que solía acontecer meses antes. En aquella residencia en la que se habían impuesto los llamados protocolos –geles, distancias prudenciales, pantallas protectoras, mascarillas cada vez más estrafalarias y termómetros que, como pistolas, apuntaban a la frente para detectar temperaturas sospechosas– las zonas comunes apenas se transitaban, se habían vaciado.

En definitiva, sometidos a separaciones terapéuticas para evitar los efectos de una pandemia de naturaleza y origen todavía inexplicados, las pantallas de **Amaya Suberviola** se multiplicaban como apariciones sin voz, como espectros sin llanto.

Dentro de cada lienzo, brotaban nuevos lienzos, pantallas de diferentes tamaños que respondían a ensayos y variaciones ejecutados con disciplina rigurosa. De no ser porque estábamos en el tercer decenio del siglo XXI, se podría creer que **Amaya Suberviola** se conducía con el orden espartano de los primeros artistas minimalistas.

La razón por delante. La emoción suspendida. El sentimiento desterrado.

Durante meses entendí que **Amaya** se conducía de manera planificada. Sin sorpresas, sin tregua para la improvisación. Con un ritmo

babes-pantailak, geroz eta xelebreagoak ziren maskarak, eta pistolen antzera kopetetarantz destatzen zuten termometroak, tenperatura susmagarriak hautemateko), eta espazio komunetan ia ez zen jenderik ibiltzen, hustu egin ziren.

Azken buruan, isolamendu terapeutikoen eraginpean, oraindik azalpenik ez zuten jatorri eta izaerako pandemia baten ondorioak saihesteko, **Amaya Suberviola**ren pantailak ugaltzen zihoazen ahotsik gabeko agerpen edo negarrik gabeko espektrora gisa.

Mihise bakoitzaren barruan beste mihise batzuk agertzen ziren, hainbat tamainako pantailak, diziplina zorrotzez egindako saiakera eta aldaketekin bat etortzen zirenak. XXI. mendearen hirugarren hamarkadan egongo ez bagina, pentsa genezakeen **Amaya Suberviola** hasierako minimalisten ordena zurrunaren bidez gidatzen zuela bere burua.

Burua aurrena. Emozioa etenda. Sentimendua aldenduta.

Hilabeteetan ulertu nuen **Amayak** modu planifikatuan gidatzen zuela bere burua. Ezustekorik gabe, inprobisazioari tokirik egin gabe. Ekoizpen-erritmo jarraian. Egutegi industrialaz eta ordenantza paramilitarrak. Artista plastiko baten lantokia baino, ordena zehatzak, izkina eta bazter bakoitzak, angelu

de producción constante. Con calendario industrial y ordenanza paramilitar. Más que un taller de una artista plástica, el minucioso orden, cada esquina, cada recoveco, reclamaban la geometría del ángulo recto, del orden previsto. La atmósfera olía a estrategia planificada. Disciplina troyana. Concierto y, sobre todo, orden pormenorizado.

«Me pregunto –escribía **Amaya Suberviola**– si es posible (...) plasmar en unos lienzos la multitud de cambios que han configurado la historia del arte» y cómo esta alteración ha sido, como se señala: «casi siempre influenciada por nuevos mecanismos de ver la realidad que nos ha ofrecido cada tiempo».

Ante esta empresa descomunal que **Suberviola** acomete, no esperen hallar respuestas, salvo los titubeos y dudas que cada persona quiera aportar. Lo más parecido a las pantallas que **Amaya** pinta tal vez sean los monolitos de *2001: Una odisea del espacio* (1968). Su ADN habita en lo enigmático.

Si se bucea en la presentación final de *Traducción de pantalla*, en sus notas conclusivas, tampoco verán emerger pistas que traspasen la retórica académica ni ningún exhaustivo plan de abordaje. Articulado en capítulos, *Traducción de pantalla 01, Traducción de pantalla 02, Traducción de pantalla 03...* **Amaya** enumera las piezas, los materiales, las combinaciones...; exalta el número y, sin embargo, entre tanta cuadrícula contable, rescata la pregunta del origen.

